

Familia agurgarria:

2020-2021 ikasturtea planifikatzen hasiak gara. Hori dela eta zuekin harremanetan jartzen gara hurrengo pausoa emateko.

Covid-19a dela eta, ezohiko egoera honetan, aurrematrikula eskabidea betetzeko honako bide hau proposatzen dizuegu:

On-line: maiatzaren 25tik ekainak 5era. Izen-emate orria atxikita duzue (Ikastetxeko Webgunean ere aurkituko duzue). **Fitxategia deskargatu eta Adobe Acrobat programan bete.** Ondoren, fitxategiari ikaslearen izen-abizenak ipini. Matrikula orriaz gain, medikazioa emateko baimena ere bete eta dokumentazio guztia (matrikula orria + medikazioa emateko baimena) matrikulak@talaiaabhi.net postara bidali, mesedez. **Ahal den neurrian On-line eran egitea eskatuko genizueke.**

On-line arazoak bazenituzte ikastetxearekin harremanetan jarri telefonoz 943899496 (08:30-14:00 bitartean).

Matrikula betetzeko informazio lagungarria Institutuko Webgunean aurkituko duzue (DBHko matrikulazio ataleko DBH1 sakatuta (<http://www.talaiaabhi.hezkuntza.net/eu/inicio1>)):



The image shows two screenshots from the TALAIA website. The top screenshot is a banner with the TALAIA logo on the left, a central green box with the text "MARIKULAZIO EPEA: Maiatzaren 18tik 29era", and the letters "DBH" in large orange font on the right. A red arrow points from this banner to the bottom screenshot. The bottom screenshot is a form titled "MAILAK" with the subtitle "Matrikulazioa DBH1 2020-2021". It contains a list of checkboxes for different levels: DBH4, DBH3, DBH2, and DBH1. The DBH1 checkbox is circled in red.

- Matrikula orria betetzeko formularioa.
- Medikazioa emateko Baimena.
- Aukerakoen informazio laburra.
- Guraso bileran aurrez-aurre azaldu nahi genizuenaren laburpena.
- Institutuko ikasle eta irakasleen ongi etorri bideoa.

Aldez aurretik, eskerrik asko.

Ondo izan

ZUZENDARITZA TALDEA
